

GAKO EKONOMIKOAK

- Banku zentralak ekonomia mantenduko dutela adierazi dute ekonomia gehiago motelitzen ari den eta muga zergaren gerra eta Brexita zehazten ari diren une batean.
- Munduko burtsa gehienetan aurrerapenak jarraitzen du, nahiz eta era neurritsuagoan izan.
- Hobekuntza orokortua errenta finkoan banku zentralen diskurtso lasaia goen ondoren; hori dela eta bonuen errentagarritasunak gutxieneko mailan egon dira.
- Euroa ahuldu egin da Europako ekonomia mehatxatzen duen ziurgabetasuna handitu delako.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Brexitaren negoziazioak, baita AEB eta Txinaren arteko muga zergen negoziazioak ere, inbertitzaileen arretagunea izan dira berriz, ahultasun ekonomiko handiagoko testuinguru batean, bereziki Europaren kasuan. Martxoan, sektore industrialaren konfiantza neurtzen duen adierazlea esperotakoa baino gehiago jaitsi da eta kontratazio mailan sakondu du. Eurogunearen adierazlearen jaitsiera, hein handi batean, alemaniarren hondoratzeak ekarri du, zuzenean eragiten baitio jardueraren globalaren ziurgabetasunak, munduko lehen potentzia eta Asiako erraldoia ez baitira ados jartzen. Europako ahultasun handiagoko testuinguru honek diru agintaritzaren mezuetan bere isla izan du. Horrela, Europako Banku Zentralak beherantz berrikusi ditu hala inflazioaren nola hazkundearen datoen hiru urteetarako aurreikuspenak eta iragarri du ez dituela interes tasa ofizialak igoko 2019an, eta epe luzera bankuak berriz finantzatzeko hainbat eragiketa egingo dituela, Europako ekonomiarako zutabe izaten jarraituko duen seinale gisa. Ildo lasaia hau Atlantikoko beste aldeko bere homologoaren, Amerikako Erreserba Federalaren, ildoan dago; izan ere, hark esan baitzuen "pazientzia" izango duela interes tasak gogortzeko prozesuan, kontuan izanda, gaur egun, ez dituztela presio inflazionistek baldintzatzen. Bestalde, AEB eta Txinaren arteko negoziatioei dagokionez, martxoaren 1aren ondoren muga zergak indarrean jarri gabe egonik, hilabetearen amaieran hitzarmena lortzeko itxaropena oso handia zen, baina oraingoz zehaztu gabe jarraitzen dute. Halere, jarrekek badirudi askoz hurbilago daudela, Txinak aurrerapen pentsaezinak eskaini ondoren, esaterako, teknologia ezinbestean transferitzeari dagokionez. Beste buruhauste handiak, Brexita, nahiz eta dibortziarako hasieran jarritako data gainditu duen, martxoaren 29an, ziurgabetasunak jarraitu egiten du, zeren Bruselak emandako luzapena apirilaren 12an amaituko da, eta egoera era argian desblokeatu gabe jarraitzen dugu. Britaniarrak Euroatik "hitzarmen batekin" ateratzearen alde daude, baina ez daude prest Mayk negoziatutako plana onartzeko; izan ere, behin eta berriz baztertu du Parlamentuak.

ERRENTA ALDAKORRA

Urtearen hasiera indartsuaren ondoren, burtsako adierazleek igotzen jarraitu dute martxoan, nahiz eta era neurritsuagoan izan. Horrela, S&P % 1,8ko igoera izan du eta Eurostoxx indizeak % 1,62koa. Halere, eskualdeko indizeetako batzuek, esaterako, Alemaniako Dax indizeak edo Ibex indizeak ez dute zorte berdina izan hilabete honetan. Alemaniakoaren kasuan, ia maila berean amaitu du, bertako sektore industrialaren ahultasunak eragin baitio, eta Espainiakoa, aldiz, -% 0,40 jaitsi da banku sektorearen jardueraren okerrarengatik. Era berean, Japonia ere % 0,8 jaitsi da martxoan; aldiz, emergenteek, guztiak kontuan hartuta, ildo hobea erakusten jarraitu dute eta % 0,68ko mailara iritsi dira hilabete honetan.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	2019ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.240,3	EUR	%8,20
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.351,71	EUR	%11,67
S&P-500	AEB	2.834,4	USD	%13,07
DOW JONES	AEB	25.928,68	USD	%11,15
NASDAQ 100	AEB	7.378,77	USD	%16,57
NIKKEI-225	JAPONIA	21.205,81	JPY	%5,95
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.058,13	USD	%9,56
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.107,742	EUR	%11,88

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

FEDen eta EBZren diskurtso aldaketak 180 graduko aldaketa ekarri du merkaturako aurreikuspenetan. 2018. urtea amaitu zen segurutzat joz interes tasak pixkanaka igotzeko prozesuak jarraituko zuela baina, aitzitik, 2019an zehar, prozesua amaitu den, edo behintzat gelditu egin den susmoa indartu egin da. Horrek ekarri du bonu alemaniarrek 10 urterako -% 0,07ko errentagarritasun negatiboa eskaintzea berriz hilabetearen amaieran. AEBren kasuan, interes tasen jaitsiera ere esanguratsua izan da, 10 urterakoak bere errentagarritasuna murriztu du 30 oinarritzko puntutan baino gehiagoan. Horrek esan nahi du hileko une jakin batzuetan 3 hilabeteko erreferentziaren azpitik kotizatu duela.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	2019ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,31	0,00
	6 HIL.	-0,23	0,01
	12 HIL.	-0,11	0,01
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,60	0,01
	5 URTE	-0,45	-0,14
	10 URTE	-0,07	-0,31
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOA	2 URTE	-0,37	-0,13
	5 URTE	0,05	-0,28
	10 URTE	1,10	-0,32

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Euroa ahuldu egin da dibisa nagusien aldean, Europako ekonomia ziurgabetasunak mehatxatzen baitu. Dolarraren aldean, bere balioaren % 1,4 galdu du eta ia 1,12 dolar/euroan amaitu du, eta yenaren aldean, % 1,80an eta 124 Yen/euroa aldatu da. Halere, indartsu mantendu da liberaren aldean, zeren moneta ingelesak oso presionatuta jarraitzen du Brexitari buruz ez delako ezer zehazten.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg